

**2008KO URRIAREN 30EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hamarra

HILABETEA: Urria

URTEA: Bi mila eta zortzia.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- Manuela Uranga Segurola
- Ana María Crespo Blanco
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA: Malu Valles Fernandez
M^a Pilar Vispo Chamosa

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. 2008ko urriaren 2ko akta onartzeko proposamena.

2008ko urriaren 2ko aktaren berri eman ondoren eta hitz egiteko txanda eman ondoren, PPko ordezkariak adierazi du ez duela onartuko bertan legez kanpo dagoen plataformak parte hartzen duelako.

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (EAJ, PSE-EE/PSOE, EA, EB)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 0

Etorri gabea: 2

Horren ondorioz, akta gehiengo absolutuarekin onartu da.

2.- PLANEAMENDUKO A HOLKU BATZORDEA. Planeamenduko Aholku Batzordea arautzen duen erregelamenduari hasierako onespena ematea.

Aitor Aldasoro jaunak, hirigintza batzordeko lehendakariak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Planeamenduko Aholkularitza Batzordea.

AURREKARIAK

2/2006 Legearen 109. artikulua ezartzen duenez, plan orokorren behin betiko onespena emateko berezko eskumena edo eskuordetutako eskumena duten udalerriek nahitaez eduki beharko dute Udal Plangintzaren Aholku Batzordea.

Halaber, 105/2008 Dekretuaren Laugarren Xedapen Gehigarrian, Udal Plangintzako Aholku Batzordearen esku-hartzeen kasuetarako, plangintza orokorraren xedapen-aldaketen eta berrikuspenen dossierrekin aurkeztu behar diren agiriak zehazten dira eta agiriak ez aurkezteak dituen ondorioak ere bai.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak udalbatza osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Beasaingo udalaren Udal Planeamenduko Aholkularitza Batzordea arautzen duen ondorengo erregelamenduari hasierako onespena ematea.

Bigarren. 30 eguneko epean jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz, bidezkoak diren alegazioak aurkeztu daitezten. Epe horretan ez bada alegaziorik izaten, erabakia behin betikoa bihurtuko da.

BEASAINGO UDAL PLANEAMENDUKO AHOLKU BATZORDEAREN ERREGELAMENDU PROPOSAMENA

I. KAPITULUA

UDAL PLANEAMENDUKO AHOLKU BATZORDEAREN IZAERA ETA FUNTZIOAK

1. artikulua. Udal Planeamenduko Aholku Batzordea sortzea.

1.Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 110. artikuluekin bat etorriz, Araudi honen bidez Beasaingo Udal Planeamenduko Aholku Batzordea sortu da.

2.Beasaingo Udal Planeamenduko Aholku Batzordea, hain zuzen, aholkurako eta eztabaidarako organo lokal bat da, hirigintza-planak egin, izapidetu eta onartzeko prozedurari dagokionez kontzertazio sozialerako funtzioak beteko dituen.

2. artikulua. Izaera juridikoa.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura erkidearen 30/1992 Legeak araututako kide anitzeko organo gisa sortu da.

3. artikulua. Funtzioak eta helburuak.

1. Udal Planeamenduko Aholku Batzordeak nahitaez eman beharko du plangintza orokorra formulatzeko, puntualki aldatzeko edo berrikuspena egiteko espedienteei buruzko irizpena.

2. Aholku Batzordearen nahitaezko txostenak kasu hauetan eman beharko dira:

- Planeamendu orokorra nahiz aldaketa puntualak egin aurreko fasean.
- Hasierako onespena eman ondorengo jendaurreko epean.

Plangintzako Aholku Batzordearen txostena, kontuan hartu izanari edo ez izanari buruzko udal-ziurtagiria eta egindako iradokizunak edo gomendioak kontuan ez hartzeko emandako erantzuna Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igorri beharreko espedienteari gaineratu beharko zaizkio. Batzorde horrek Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 91.2 artikuluan aurreikusitako txosten loteslea eta aginduzkoa egin dezan.

3. Era berean, Aholku Batzordeak eskumena izango du hirigintza-antolamenduko beste plan eta tresna batzuei buruzko informazioa biltzeko eta horren berri emateko batzordea osatzen duten kideen gutxienez herenak horrela eskatuz gero.

4. Aintzat hartzen dituen gaiak aztertzeko agirien bidez esku hartuko du Batzordeak. Agirietan proposamenak edo aukerak aurkeztu ahal izango ditu, baina horiek ez dira izango lotesleak herri-administrazioentzat.

5. Batzordeak Udalean aurkeztutako proposamen edo aukerei dagokienean, planeamenduko dokumentuaren behin betiko onarpenaren ebazpenean horiei buruzko argibiderik ematen ez denean, erantzun arrazoitua eman beharko da.

6. Jendaurrean ikusgai jarri baino lehen, artikuluko honetako 1. atalean ageri den edozein espedienteraren hasiera ofizioz jakinaraziko die Udalak Aholku Batzordeko kideei.

II. KAPITULUA

UDAL PLANEAMENDUKO AHOLKU BATZORDEAREN OSAERA

4. artikulua. Osaera.

Planeamenduko Aholku Batzordeak kide hauek izango ditu:

a) Lehendakaria: Alkatea izango da Aholku Batzordeko lehendakaria; alabaina, edozein zinegotziren esku utz dezake lehendakaritza.

b) Lehendakariordea: Hirigintzako zinegotzi titularra izango da. Eta lehendakariak bezala, edozein zinegotziren esku utz dezake bere kargua. Aipatutako ordezkapena alde batera utzita, lehendakariordeak lehendakaria ordezkatzeko du, azken horren kargua hutsik dagoenean, ez dagoenean edo gaixo dagoenean.

c) Zinegotziak diren kideak: zinegotziak, batzorde informatiboak osatzeko ezarritako proportzioan, lehendakaria eta lehendakariordearen talde politikoen ordezkariak kenduta.

d) Zinegotziak ez diren kideak, gehienez ere bost, banaketa honen arabera:

- d.1) Bareak dendarien elkarteko kide bat..
- d.2) Tokiko Agenda 21eko kide bat.
- d.3) Eskolako Agenda 21eko kide bat.

d.4) Jarduera udalerrian garatzen duten elkarteetako bi kide. Elkarteak, Batzordearen Lehendakariak aukeratuko ditu, udalean ordezkariak izango dituen talde politikoek proposatuta.

e) Idazkaria: Aholku Batzordeko idazkari izango da udalbatzako idazkaria edo bera ordezkatzeko izendatutako pertsona. Idazkariak, Lehendakariaren ikuskaritzapean, laguntza eta aholkuak emango dizkio Aholku Batzordeari.

f) Lehendakariak, Lehendakariordeak edo edozein kidek hala proposatuz gero, Batzordeko bileretan parte hartu ahal izango dute, batzordeko kideak izan ez arren, hitzarekin baina botorik gabe:

f.1) Hirigintza-planak idazteaz arduratzen diren teknikariek.

f.2) Hirigintzako eta ingurumeneko udal teknikariek.

f.3) Hirigintza eta Ingurumenaren arloan edo, besteak beste, kultura, kirol, hezkuntza eta gizarte gaietan adituak diren pertsona ospetsuek.

5. artikulua. Batzordeko kideen izendapena eta kargu-uztea.

1.Aholku Batzordeko kideak Alkateak izendatuko ditu. Izendapenak horrela proposatuko dira:

a) Alderdi politikoek ordezkariak, alderdiek beraiek proposatuta.

b) Gainerako kideak, ordezkatzeko dituzten erakundeek ordezkariak izendatuko dituzten erakundeek ordezkariak proposatuta.

Batzordean ordezkariak izendatzeko, elkarteek inskribatuta egon beharko dute dagokien Elkartearen Erregistro Orokorrean.

Batzordean parte hartu nahi duten entitateen kopuruak gehieneko ordezkariak izendatzeko kopurua gainditzen badu, eta elkarte horien artean adostasunik ez badago, Batzordeko lehendakariak ezarriko du parte hartzeko modua –zozketa bidez, txandakatze bidez, batera bertaratzearen bidez, edo egoki irizitako beste formula baten bidez.

2.Kideek aldeztatik aurrerik onartu beharko dute haien izendapena.

3.Aholku Batzordeko kideen agintaldiaren iraupena bat etorriko da izendatuak izan ziren agintaldiarekin. Dena den, ondoko arrazoiengatik kargua utzi ahal izango dute:

a) Kide izateari uko egiteagatik.

b) Epai irmo baten bidez kargu publiko bat betetzeko ezintasuna edo ezgaitasuna aitortzen denean.

c) Haien karguagatik Batzordeko kide diren pertsonak kargua uzten dutenean, Batzordea ere utzi beharko dute.

d) Proposatuen erakundeak kargugabetu duelako edo hautatu zuen elkartearen utzi duelako.

e) Araudi honetan adierazitako funtzioak behin eta berriz ez betetzeagatik.

5. Batzordeko plaza hutsak izendapenerako ezarri den modu berean beteko dira.

III. KAPITULUA

FUNTZIONAMENDU ERREGIMENA

6. artikulua. Ohiko eta ezohiko bilkurak.

1. Planeamenduko Aholku Batzordeak ohiko bilkurak egingo ditu Planeamendu espedienteei buruzko irizpena emateko, Araudiaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ohiko bilkuran, aipatutako txostena egin beharko du.

2. Dena den, ohiko bilkurez gain, Batzordeak ezohiko bilkurak egin ahal izango ditu presazko edo komenentziazko arrazoiak direla medio. Horrelakoetan, bilkurarako deialdia Lehendakariak egingo du, Lehendakariak berak proposatuta edo Batzordea osatzen duten kideen gutxienez herenak eskatuta.

7. artikulua. Quoruma.

Bilkurak egin, eztabaidatu eta erabakiak hartzeko beharrezkoa izango da Lehendakariaren eta Idazkariaren presentzia, edo bestela, horiek eskuordetutako pertsonena, eta Batzordeko kideen gehiengo absolutuarena. Gainera, zinegotziak ez diren kideen herena beharko da.

8. artikulua. Bilkurak deitzea.

1. Bilkuretarako deialdia, bilkurako eguna baino gutxienez bost astegun lehenago egingo da. Nolanahi ere, deialdiarekin batera joango da bilkurako gai-zerrenda.

2. Gai-zerrendan ageri diren gaiei buruzko informazioa idazkariaren esku egongo dira deialdia egin baino hiru egun lehenago.

3. Batzordeko Lehendakariak, Lehendakariak berak proposatuta edo edozein Batzordekidek eskatuta, premiazkoztat joz gero, gai-zerrendan ez dagoen beste edozein gai sartzea proposatu ahal izango du bilkuraren aurretik.

9. artikulua. Deliberazioak.

Batzordeko Lehendakariak batzarrak zuzendu, eztabaidak antolatu eta bilerak ondo egiten direla bermatzeko komenigarriak diren neurriak hartuko ditu.

10. artikulua. Lan-batzordeak.

1.Lan-batzordeak osatu ahal izango dira hirigintza-planeamenduko gai zehatzak jorrazteko edo Batzordearen gehiengoak beharrezkotzat jotzen duenean.

2.Lan-batzordeen osaera, izena eta funtzionamendua Batzordeak erabakiko du.

3.Lehendakariak beharrezkotzat eta egokitzat jotzen duen laguntza teknikoa eskatuko du udalean bertan edo udaletik kanpo.

4.Lan-batzordeek jorratutako gaien berri emango diote Batzordeari.

11. artikulua. Erabakiak hartzea.

1.Aholku Batzordearen erabakiak bildutako kideen gehiengo soilaren bidez hartuko dira. Berdinketa egonez gero, Lehendakariak kalitate botoa emango du. Nolanahi ere, boto partikularrak har daitezke eta ados ez dauden alderdien iritzia agerrarazi.

2.Hartzen diren erabakiak akta batean jasoko ditu Idazkariak, eta akta hori aztertu beharreko hirigintza-espediteari gehituko zaio. Erabaki horiez gain, Udalarentzat lotesleak izango ez diren hirigintza-antolamenduko proposamen edo aukera zehatzak aurkeztu ahal izango dira.

12. artikulua. Funtzionamenduko barne-arauak.

Aholku Batzordeak, Araudi honetan ezarritakoarekin bat etorritik, bere funtzionamenduko barne-arauak ezar ditzake.

13. artikulua. Tokia eta Aktak.

Aholku Batzordearen batzarrak Udalaren bulegoetan egingo dira. Batzar bakoitzean akta egingo du idazkariak; akta hori Batzordeko kideei bidaliko zaie hamabost astegunen barruan eta hurrengo batzarrean onartuko da egokia izanez gero.

14.- Baliabideak atxikitzea.

Aholku Batzordea hirigintza gaietan eskuduntza duen arloaren menpe gelditzen da. Beraz, Aholku Batzordeak ondo funtzionatu dezan, hirigintza arloak behar diren baliabideak jarriko ditu bere esku.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

1. Araudi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hogei asteguneko epean, seigarren artikuluan adierazitako elkarteek eta pertsonak, nahi izanez gero, Udal Planeamenduko Aholku Batzordean parte hartzea eska dezakete. Alkateak eskaera horiei erantzun eta onartutako pertsonak deituko ditu Batzordea eratzeko egingo den bilerara.

2. Udal Planeamenduko Aholku Batzordea formalki eratuta geratuko da horretarako deituko den bileraren bidez.

3. Batzordea osatu ondoren, bertan parte hartu ahal izango dute Araudi honetan xedatutakoa betetzen duten elkarteek, baldin eta ez bada gainditu zinegotziak ez diren gehienezko kideen kopurua.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honetan espresuki aurreikusi ez denari dagokionez, Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen funtzionamendua eta jarduna Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. kapituluko II. tituluaren xedatutakoaren arabera izango dira. Gainerako xedapenetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eta Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudian (2568/1986 Errege Dekretua) ezarritakoa bete beharko da.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honetan ezarritakoa aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eta arauak ezartzeko eskumena ematen zaio hirigintza arloan eskumena duen Batzordeari.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean egongo da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.”

Une honetan sartu da batzarraldira, M^a Pilar Vispo Chamosa.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

3.- IZENDEGIA. Eraikinak zenbatzeko proposamena.

Aitor Aldasoro jaunak, hirigintza batzordeko lehendakariak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Hirigintza jarduera berriak eta eraikinen zenbakiak eguneratzea direla eta, Udalaren Osoko Bilkurari proposatzen zaio zerrendan agertzen diren eraikinei ondorengo zenbaki hauek jartzea:

- ALBISU BASERRIA, ASTIGARRETA auzoan - 33 zenbakia
- KALE NAGUSIKO 21-23 ERAIKINAK (Batzokia zegoen eraikina eta beste bat), 21 Zenbakia izango du (23 zenbakia galdu egingo da)
- OSASUN ZENTRO BERRIA, BERNEDOENEAN, - 1 Zenbakia”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

4.- TAXIAK. 2009. urterako tarifak onartzea.

Arantxa Gibelalde, Hazienda Batzordeko Lehendakariak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“GAIA.- Taxi-zebitzuaren 2009ko tarifak.

(AGITAX) Gipuzkoako Taxisten Elkarteak, Goiekiren bidez, Goierriko erregimen bereziko eremuan aplikatzeko 2009 urterako tarifen onespena eskatu du.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, Hazienda Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio proposamena egiten dio:

Lehenik.- Gipuzkoako Taxisten Elkarteak proposatutako kostuen estudioaren onspena.

Bigarren.- Agitaxek Goiekiren bidez proposatu eta ondoren zehazten diren 2009rako tarifen onspena (2008rako onartutakoak %4,9ko igogerarekin):

	Abiasaria /Bajada de bandera	Ibilitako kilometroa Kilómetro recorrido	Itxarote ordua Hora de espera
Tarifa 1*	3,0841 €	0,9655 €	18,4414 €
Tarifa 2**	3,0841 €	1,5398 €	28,9839 €

* Lanegunetan 07:00tik 22:00arte

** Lanegunetan 22:00tik 07:00 arte. Bai igande eta araudi autonomiko eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larunbatetan.”

Hirugarren. Goiekiri erabaki honen berri ematea.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

5.- KREDITU ALDAKETA:

a.- Udalaren kreditu aldaketa, kreditu gehigarri modalitatean.

Alkateak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“GAIA.- Kreditu Aldaketa. 8. Kreditu Gehigarrien Espedientea.

Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastuak egin beharra izanik eta hauek finantzatzeko aurrekontu krediturik ez dagoela kontutan hartuz, Alkateak honek Udaltzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 8. Kreditu gehikuntzen bidez 625.000,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.”

GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala

badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontu saila	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1.5000.601.511.10.01	Inf. y urb.: Plaza Joan Iturralde	300.000,00	625.000,00	925.000,00
GUZTIRA		300.000,00	625.000,00	925.000,00

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarreraren kontzeptuak	Baliabidearen kontzeptua	Sarrera handiagoak edota gastuetako bajak
2.0000.870.000.00.01	Diruzaintzako gerakina: kreditu gehikuntza	625.000,00
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA		625.000,00

b.- Kiroldegiko kreditu aldaketa kreditu gehigarri modalitatean.

GAIA.- Antzizar Kirolaren Udal Erakundearen Aurrekontuan kreditu Aldaketa. 1. Kreditu Gehigarrien Espedientea.

Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastuak egin beharra izanik eta hauek finantzatzeko aurrekontu krediturik ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 1. Kreditu gehikuntzen bidez 22.500,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.

GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzeko premiaren aurrean eta hauek finantzatzeko aurrekontu krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontu saila	Kontzeptua	Kredituak		
		Egunoak	Alda ketak	Behin betikoak
1.0000.933.45 2.20.01	Maileguen amortizazioa: Eguzki panelak	3.200,00	22.50 0,00	25.700,0 0
GUZTIRA		3.200,00	22.50 0,00	25.700,0 0

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarrerren kontzeptuak edota gastuen kontu-sailak	Baliabidearen kontzeptua	Sarrera handiagoak edota gastuetako bajak
2.0000.712.000.00.0 1	EVE dirulaguntza: Eguzki panelak	11.900,00
2.870.000.00.01	Diruzaintzako gerakina: kreditu gehikuntza	10.600,00
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA		22.500,00

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros vamos a dar el visto bueno a ambas modificaciones, aunque en la Junta de Gobierno Local nuestro partido se abstuvo en la licitación de las obras de remodelación del parque Iturralde por cuestiones procedimentales.”

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

6.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAN HOBARIA EMATEA:

a.- La Salle ikastetxean aldagelak eta komunak birmoldatzea, arrapala egitea eta fatxada konpontzea.

Arantxa Gibelalade, Hazienda Batzordeko Lehendakariak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“GAIA: La Salle-S.José ikastetxean egin beharreko ondorengo obregatikoa Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko hobari eskaria:

- Sarbideko arrapala eta fatxadaren konponketa. (Expte.: 2008OBME0079).
- Aldagela eta komunen konponketa. (Expte.: 2008OBME0075).

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga erregulatzen duen Udal Ordenantzak ondorengo hobaria jasotzen du:

%95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak eta obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, etxebizitza babestuak barne, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena eta hobariaren ehunekoa Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Hazienda Batzordearen iritzi, goian aipatutako interes bereziko eta udal onurako zirkunstantzia sozialak betetzen dira eta beraz, Udalbatzari ondorengo akordioa PROPOSATZEN dio:

La Salle-S.José ikastetxeko sarbideko arrapala, fatxadaren konponketa eta aldagela eta komunen berrikuntza lanengatik egin beharreko obrek sortzen duten Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan %95eko hobaria onartzea (Exptes.: 2008OBME0079 y 2008OBME0075).”

b.- Juan XXIII kalean lokala etxebizitzan bihurtzea.

“GAIA: Joan XXIII, 1 – behea ezkerrean etxebizitza eraikitzeke egin beharreko obren gaineko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko hobari eskaria.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga erregulatzen duen Udal Ordenantzak ondorengo hobaria jasotzen du:

%95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak eta obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, etxebizitza babestuek barne, zirkunstanzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena eta hobariaren ehuneko Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Hazienda Batzordeak eskaria aztertu eta gero, Udalbatzari ondorengo akordio PROPOSAMENA egitea erabakitzen du:

Lehenik.- Joan XXIII, 1 – behea ezkerrean etxebizitzaren eraikuntza interes berezikoak izendatzea zirkunstanzia sozialak izateagatik eta Etxebizitzetarako hiri-lurzoruan finkatutako eremu jakin batzuetan dauden aretoen erabilera hirugarren sektorekoa izateagatik etxebizitzetarako izatera aldatzeko jarduerak arautzen dituen eta 2007ko urriaren 19ko GAOn argitaratutako ordenantzak xedatutakoaren arabera.

Bigarren.- Aipatutako obraren exekuziotik ondorioztatzen den Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan %95eko hobaria onartzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

7.- UDALHITZ. 2008-2010 urteetarako UDALHITZ hitzarmenari atxikitzea.

Alkate jaunak, 2008ko urriaren 24ko Gobernazio Batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan, EUDEL, tokiko erakundeen ordezkaria eta sindikatu esanguratsuenen artean lan-hitzarmenen ibilbide luzea dago. Euskadiko Herri eta Foru Administrazio Langileen Lan Baldintzak Arautzeko Hitzarmenarekin (ARCEPAFE) hasi ziren, eta 2006ko martxoko Udalhitz Akordioekin jarraitu zuten. Horiei esker, lan baldintza aurreratuen marko bat egituratu da eta Euskadiko Lurralde Erakundeen eraginkortasuna, kalitatea eta herritarrei zerbitzua emateko izpiritua asko garatu da.

Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, 34. artikuluan, Euskadiko udal-erakunde guztientzako lan-harremanen marko bateratua finkatzea ahalbideratzen du, berariaz aitortzen baitie EUDEL bezalako udalerrien elkarteei, negoziazio-prozesuetan toki mailako erakundeen ordezkaritza bere gain hartzeko aukera.

Horrela, EUDELek sindikatuen bitartekarietarako negoziazioen ardura hartu izana Udalen eta tokiko beste erakundeen izenean, posible egiten da. Beraz, akordioak eta sektoreko hitzarmenak formalizatuko ditu, erakunde bakoitzean berehala ezartzeko, horietara atxikita eta bestelako izapiderik egin gabe. Horrek izugarri sinpletzen du negoziazioen dinamika, eta era berean, erakunde guztien arteko lan-baldintzak homogeneizatzen dira. Hori guztia oso onuragarria da bertaratutako alderdi guztientzat

Irailaren 22an Udalhitz 2008-2010 Akordioak sinatu dira honakoen artean: EUDEL- Euskadiko Udalen Elkarte, eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatuak. Akordio horien bidez, euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dira eta udaletara igorri dira, dagozkion atxikipenak gauzatu daitezten.

Bestalde, aipatu artikuluen 8. artikuluan aipatzen denez, baldintza jakin batzuk erakunde edota pertsonen eremuan mantendu ahalko dira, baldin eta Akordioa gainditzen badute, eta aurretiaz aitortutakoak badira.

Aurreko hori guztia kontuan izanda, Gobernazio Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

LEHENENGO

Euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dituzten Udalhitz 2008-2010 Akordioetara (udaltzaingoari buruzko akordioa barne) atxikitzea. Akordio horiek 2008ko irailaren 22an sinatu ziren EUDEL-

Euskadiko Udalen Elkartearen eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatuetakoren ordezkarien artean.

BIGARREN

Aurretiaz aitortutako honako baldintza onuragarriagoak mantentzea II Eranskinean aipatzen diren gaurkotasunekin:

- KUE-ko abonuen arloan onartutako gizarte-prestazioen erabaki adostuaren aldatzea.
- Lehen etxebizitza erosteko maileguak eta kontsumoko maileguak.
- Jaiegunak antzinatearen kontura.
- Balorazio-azpibatzea.
- Lan-egutegia. Abenduaren 24ak eta 31k izango duten tratamendua.
- Bizi-aseguruaren kapitala 45.000 €/ 2004. urtea.

HIRUGARRENA

Akordio hauek jakinaraztea EUEDELI, Enpresa Batzordeari sindikatu atalei eta Udalean akreditaturik dauden sindikatu guztiei.

II ERANSKINA

- Lehen etxebizitza erosteko maileguaren zenbatekoa eguneratzea 25.000 eurokoa izatetik 27.000 eurokoa izatera pasatuz.
- Kontsumorako maileguaren zenbatekoa eguneratzea 9.000 eurokoa izatetik 10.000 eurokoa izatera pasatuz.
- Bizi-aseguruaren kapitalaren zenbatekoa eguneratzea 45.000 eurokoa izatetik 50.000 eurokoa izatera pasatuz.
- Ordainsariaren gutxieneko maila eguneratzea 8 mailako ordainsari orokorren kopuruan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Voy a votar que no y voy a explicar el por qué. Es obsceno que en esta plena crisis cuando la misma Zenarruzabeitia ha anunciado que rebaja su previsión de crecimiento para este año que viene y prevé la subida del paro, los funcionarios vean incrementados su sueldo en un 6% cuando a final de año la previsión del IPC será más o menos la de 4,6%. Es obsceno que para conseguir esta subida, los ciudadanos en plena crisis con riesgo de ir al paro ahogados por el pago de sus créditos en especial los hipotecarios, enfrentados a la carestía y a la inflación. El caso de las Administraciones Públicas es curioso en el ámbito laboral. Los políticos somos los únicos empleados de los ciudadanos, nuestra verdadera patronal que podemos “obligar” a nuestros jefes, los ciudadanos, que nos den más dinero, vía tasas e impuestos, sin que otro trabajador pueda obligar a su jefe a que le

suba el sueldo por mucho que no llegue a fin de mes ni pueda pagar la hipoteca. Además de ser un agravio comparativo inaceptable, esta subida por encima del IPC, va a contribuir a crear más inflación, más carestía y más paro. Las Administraciones Públicas somos los primeros en tener que dar ejemplo. Proponemos como medida excepcional ante la pérdida de poder adquisitivo por parte de los funcionarios una subida ajustada al IPC y una congelación del sueldo de los políticos.”

Josi Insausti jaunak (EA): “Nosotros nos vamos a abstener porque la propuesta que aquí se nos trae, es una propuesta que ofrece un blindaje a tres años, la cual el incremento para el 2008, IPC más uno, si lo podemos compartir, pero en lo referido a los años 2009-2010, con la incertidumbre económica que se nos está presentando y el futuro incierto, nos parece aventurado adoptar un acuerdo de este tipo, máxime, y esto no quiero que se me mal interprete, cuando aún en la comarca tenemos convenios bianuales que establecen incrementos del IPC, mas uno, más dos, etc., también tenemos que tener en cuenta que son convenios de las empresas privadas que siempre están sometidos a la cartera de pedidos, y por consiguiente pueden cumplirse o no, además de que pueda haber despidos. Todos sabemos y es así, aún en las peores condiciones económicas, el colectivo de trabajadores que tiene garantizado su puesto de trabajo es precisamente, el colectivo de funcionarios. Insisto, no quiero que se me mal interprete, pero tenemos que ser consecuentes con el futuro incierto que se está presentando desde el punto de vista económico.

A su vez, sé que tampoco es tema de este Pleno, pero en la comisión de gobernación del día pasado, planteamos que de cara a los presupuestos, y en esto también instamos al resto de los grupos, que la aportación a los grupos políticos quede congelada, por los motivos que antes he comentado.”

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Somos conscientes de que cualquier negociación que se alarga en el tiempo, nos es lo mismo cuando se empieza a negociar que cuando se acaba. Las circunstancias pueden variar y este es uno de los casos en el que la situación de la economía a nivel global, nos ha arrastrado también a nosotros y estamos en una situación de crisis o posible recesión. Pensamos que cuando se nos dice que vamos a tener 600.000 € menos de los ingresos previstos, que además tendremos que devolver a Diputación en un plazo de tres años, y la previsión para el incremento del presupuesto del año que viene, según se nos ha adelantado va a estar sobre el 2%, el hecho de que se plantee que el incremento salarial vaya más allá de lo que sería el incremento del poder adquisitivo, hace que nuestro partido no haya apoyado ni vaya a apoyar en este pleno la propuesta que se nos presenta. Nos vamos a abstener, porque pensamos que cara al resto de los ciudadanos, el grupo de trabajadores que más difícil tiene la pérdida del puesto de trabajo, salvo que sean funcionarios interinos, es el personal

funcionario porque tiene que caer toda la Administración para que caiga el puesto de trabajo. El resto de trabajadores, por muy fijo que sea, ninguno tiene garantizado el puesto. Hace una semana hemos visto una manifestación en Beasain de un grupo de trabajadores de una empresa cercana a nuestro municipio, JASO, en la cual la crisis ha supuesto que, creo que son 39 trabajadores se queden en el desempleo. Del paro que cobren tendrán que pagar los impuestos municipales que van a suponer un incremento salarial más allá del mantenimiento. Por ello nos parece que no es de recibo, máxime cuando la propuesta es para tres años, y no sabemos cómo nos va a golpear la cuestión económica. Pensamos que en ningún momento se tenía que haber presentado esta propuesta vista la situación económica. Nos vamos a abstener porque tampoco queremos dejarles sin incremento a los trabajadores, pero no nos parece que lo que se propone es lo correcto.”

EAEko ordezkaria: “Lehenengo inpresioa positibotzat hartu daiteke, igoera ikusita, baina beste neurri batzuk ere azaltzen dira. Akatsa izango litzateke, erabakiak hiru urteetarako direla eta hau ezin da aldatu. Halaber faltan botatzen dugu, pribatizazioaren aurkako jarrerarik ez egotea eta ezta benetako prestakuntza planak ere. Bestalde esan, aurtengo igoserak aplikatu gabe daudela eta dagoeneko urrian gaudela. Gure ustetan gauzak beste aurreikuspen batekin egin behar dira. Beraz, gure jarrera aurkakoa da. Badakigu mahai bat irekita dagoela eta prest egongo ginateke mahai horretan parte hartzeko eta mahai horretatik ateratzen bada pribatizazioaren aurkako jarrera, publikoki esango genuke oker geundela.

Batzuk esan duzue, talde politikoaren dirulaguntzak ez igotzearen aldeko proposamena egingo duzuela, baina gai honekin ez da demagogiarik egin behar. Denok jasotzen dituzue dirulaguntzak, baina hemen gu gara ezer kobratzen ez dugunak. Baita ere esan duzue, funtzionarioak direla lanpostua galtzeko arriskua ez duten langile bakarrak, baina honekin ere demagogia gutxi, gertatu daiteke soldata lan-urte guztietarako izatea, baina eskasa izatea.”

Julio Herreros jaunak: “Sra. Secretaria, le pido a Vd. que de fe pública de lo que está ocurriendo, que es la participación de la plataforma ilegalizada.

Los exbatasunos solo pueden ir a título personal, participar al final del Pleno, en el apartado de Ruegos y preguntas. Nunca pueden participar como Plataformas o Grupo Político.

Según el art. 88,3 del (ROF) Reglamento de Ordenación y Funcionamiento: el público asistente a las sesiones (Plenos) no podrá intervenir en estos, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o de desagrado, pudiendo el Presidente (Alcalde) proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación

puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.

El art.228-2 del ROF (Reglamento de Ordenación y Funcionamiento):

Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de Ruegos y Preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este asunto.

Sr. Alcalde, se esta incumpliendo lo establecido en los artículos anteriores, no son cargos públicos, están ilegalizados, no pueden participar en los Plenos. Toda esta movida es ilegal.”

Alkate jaunak (EAJ): “Me hago responsable.”

Jarraian, Alkateak enpresa batzordeko ordezkariari hitza eman dio, eztabaidatu den gaiarekin zerikusia duelako.

Enpresa Batzordeko ordezkariak esan du negoziazioak hasi zirenean, EUDELera bidali zituztela beraien ordezkariak eta naiz eta hainbat gorabehera izan, azkenean alderdi politikoak sindikatu gehienekin akordio batetara iritsi zirela eta akordio horiek udaletxe bakoitzean berretsi egin behar direla. Akordio orokor hori lortu eta gero ez da ulertzen orain banakako jarrerak izatea. PSOERI gogorarazten dio Barakaldo eta Andoainen erabakia onartu egin dutela eta aldi berean adierazi du KPI+ %1a eskualdean aplikatzen dena erkatzen bada, baxuena dela.

Bukatzeko esan du, agian, negoziatzeko beste era bat bilatu beharko dela.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 7 (EAJ, EB)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 8 (PSE-EE/PSOE, EA)

Etorri gabea: 1

8.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderetan ondorengoak aurkeztu dira:

HAURTZAINDEGIA

Josi Insausti jaunak (EA): “De un tiempo a esta parte hemos estado asistiendo a un cúmulo de críticas con el tema de la guardería. Nos consta que

en este momento se están haciendo bastantes reuniones para analizar la situación y para buscar soluciones. Nuestro ánimo no es el de reprochar lo que se ha hecho, sino mirar a futuro. Ahora bien, creo que humildemente desde el Ayuntamiento tenemos que reconocer que hay cosas que no se han hecho bien y la consecuencia ha sido que las personas usuarias de esas instalaciones, desde el momento que no son adecuadas, tengan un gran malestar. Hay actuaciones inmediatas que se deben de acometer para acondicionar uno de los barracones, pero nuestro planteamiento es otro. Si bien esas actuaciones inmediatas hay que ejecutarlas, ahora que estamos en la elaboración del presupuesto del 2009, es el momento de pedir al resto de los grupos, que además de las iniciativas que puedan presentar, tomen como iniciativa prioritaria, el poder disponer de la partida suficiente o necesaria para que de una vez por todas tengamos unas instalaciones adecuadas, conforme al servicio que se tiene que prestar. La realidad de Beasain es que a diferencia de otros municipios o de otras zonas, en donde la natalidad descende, aquí no sucede lo mismo. Creo que es un tema importante y prioritario y que requiere de un análisis serio para que podamos tener una proyección de futuro. Insisto, pediría al resto de los grupos que también lo tomaran como una prioridad a acometer sin olvidar las actuaciones inmediatas a realizar para adecuar esas instalaciones.

En segundo lugar, en relación al estudio del PERCO, parece que ha concluido. Mañana se va a presentar a los comerciantes, pero bueno sería que en el Ayuntamiento internamente tuviéramos conocimiento de lo que ha dado de sí el estudio y cuáles son las conclusiones, ya que a nosotros nos va a tocar decidir las intervenciones que correspondan al Ayuntamiento y poder consignarlas presupuestariamente.”

Fernando Boada jaunak (PSE/PSOE): “Ayer cogí la revista que hace el Ayuntamiento, más bien Alcaldía y en ella se recoge la inauguración del centro psico-social. Lo que queremos preguntar es a quien compete, cuando se hacen este tipo de inauguraciones, como el que hoy hemos visto en la empresa de la inauguración de la gela de dos años del colegio Murumendi, el que se entere sólomente Alcaldía o también el resto de grupos. Ya que se nos invita para otras cosas, también nos gustaría tener conocimiento de este tipo de inauguraciones. Si podemos asistir nos gustaría poder asistir porque hemos sido invitados, y no presentarnos allí si no hemos sido invitados. Queríamos saber quien se encarga de las invitaciones y quien se encarga de decidir quien tiene que asistir, y en este caso que si nos hubiera gustado ir por qué no se nos ha invitado.”

Alkatea jaunak (EAJ): “Hartzaindegikoari erantzunez esan, hartzaindegian arazo batzuk ditugula. Lehengo eraikuntza bat berriren zen eta arazo batzuk ditu, baina konpontzeko bidean gaude. Lehengo astelehenean jakin izan genuen, orain dela bi hilabete elkarrizketatzeko eskatu ondoren,

mapa eskolarra nola dagoen. Orain martxan jarri gara lokal bat bi gelakoa egokitzeko. Bost edo sei haur dauzkagu haurtzaindegira joan nahi dutenak eta itxaro-zerrendan daude. Partzuergoari eskatu diogu malguak izateko eta esfortzu bat egiteko urtarrila bitartean haur horiek onartzeko. Gerora begira hasi gara aztertzen eta konpartituko ditugu gauzak eta baita ere irizpideak. Orain arte uste genuen haurtzaindegia zentro bakarra zela, baina partzuergotik esan digute aukera ba dagoela haurtzaindegiak toki desberdinetan eratzeko. Ez du izan behar zentro bakarra. Hori guztia aztertzen ari gara eta nik uste dut hemendik hilabetera gauzak nahiko argi izango ditugula. Zuen eskaria eskertzen dut.

Respecto a lo comentado por Fernando decir, que la inauguración del centro psico-social, corrió a cargo de Diputación, que es quien mandó las invitaciones. Quizás yo tenía que haber tenido más reflejos y mandar la invitación a todos. Hablé con Malu y ella me dijo que todos los representantes de la comisión que ya tenían la notificación, y quizás sería conveniente mandar una invitación formal.

En lo que a Murumendi se refiere fue una invitación que hizo el centro escolar. Nos mando una invitación a Arantxa y a mi.

Desde aquí en adelante si los que invitan no dicen lo contrario, asumo el compromiso de invitar formalmente a todos y cada uno de los concejales.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera hamarrak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.